

## **ITZULPENEA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA, 2006ko apirilaren 27koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Europar Batasuneko Elkartasun Funtsaren finantzazioari buruzko Batzordearen 2002ko azaroaren 7ko erakunde arteko Akordioaren 3. puntuari jarraiki. Akordio horrek aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzko 1999ko maiatzaren 6ko erakunde arteko Akordioa osatzen du.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : *«Decisión del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2006, relativa a la movilización del Fondo de Solidaridad de la Unión Europea de conformidad con el punto 3 del Acuerdo interinstitucional de 7 de noviembre de 2002 entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre la financiación del Fondo de Solidaridad de la Unión Europea, que complementa el Acuerdo interinstitucional de 6 de mayo de 1999 sobre la disciplina presupuestaria y la mejora del procedimiento presupuestario» (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 154 2006/6/8)*

## II

*(Aplikatu ahal izateko, nahitaez argitaratu behar ez diren egintzak)*

# EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

## EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA 2006ko apirilaren 27koa

**Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Europar Batasuneko Elkartasun Funtsaren finantzazioari buruzko Batzordearen 2002ko azaroaren 7ko erakunde arteko Akordioaren 3. puntuari jarraiki. Akordio horrek aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzko 1999ko maiatzaren 6ko erakunde arteko Akordioa osatzen du**  
(2006/397/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Europar Batasuneko Elkartasun Funtsaren finantzazioari buruzko Batzordearen 2002ko azaroaren 7ko erakunde arteko Akordioa aztertu dute<sup>(1)</sup> (akordio horrek aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzko 1999ko maiatzaren 6ko erakunde arteko Akordioa osatzen du), eta, bereziki, horren 3. puntua.

Kontseiluaren 2012/2002/EE Erregelamendua<sup>(2)</sup>, 2002ko azaroaren 11koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa eratzen duena, aztertu dute.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Europar Batasunak Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa («Funtsa») eratu du hondamendiak jasan dituzten eskualdeetan kaltetutako biztanleei elkartasuna adierazteko.
- (2) 2002ko azaroaren 7ko erakunde arteko Akordioari esker, urtean gehienez 1.000 euro arteko kopurua mobilizatu daiteke funtsetik.

---

<sup>(1)</sup> EO C 283 E, 2002.11.20koa, 1. or.

<sup>(2)</sup> EO L 311, 2002.11.14koa, 3. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(3) 2012/2002/EE Erregelamenduko xedapenek arautzen dute funtsaren mobilizazioa.

(4) Bulgariak, Errumaniak eta Austriak funtsak mobilizatzeko eskaerak egin dituzte, uholdeek eragindako hondamendietarako.

ERABAKI DUTE:

*1. artikulua*

Europar Batasuneko 2006ko ekitaldiko aurrekontu orokorraren kontura, funtseko 106.357.627 euro mobilizatuko dira konpromiso- eta ordainketa-kreditutan.

*2. artikulua*

Erabakia *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Bruselan egina, 2006ko apirilaren 27an.

*Europako Parlamentuaren izenean,  
Presidentea*

J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean,  
Presidentea*

H. WINKLER